

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Apirilak 29 20. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Azokara adin guztietako jendea hurbiltzen da

## Arrasateko Udal Azoka aztergai

Arrasaten Udal azokak urte ugari daramatza arrasatearrei beren zerbitzuak eskaintzen. Azoka Sebero Altube enparantzatik oraingo kokagunera, hau da, Ferialera pasa zutenean, postuak hogeitertarako eman zitzaizkien komertzianteei eta hogeitertu horiek datorren urtean betetzen dira. Ondorioz, Udalak azokarekin zer egin, hau da, azoka mantenduko duen, berri bat eraikiko duen edo gaur egungoa berriztuko duen erabaki behar du. Beren erabakia egokiena izan dadin AIEI erakundeak azken egun hauetan Udal Azokaren bideragarritasun-azterlana egiten dihardu. (14. or.)

### ORAIN ETA HEMEN

#### Eskualdeko Ospitalea

Sindikatuak bere egoera txarra salatzen dute. Administrazioak, osterara, ez dauka berria erikitzeko asmorik.

(12. or.)

#### ELKARRIZKETA

##### Leopoldo M<sup>a</sup> Panero

Santa Agedan bizi den idazlea dugu. Tamalgarria da esan zuen guztia orri batean ez kabitzea.

(17. or.)

#### PODIUMA

##### José M<sup>a</sup> Balzategi

Arrasateko saskibaloiairen historia laburrean, izen klabea.

(19. or.)

#### KOMIKIA

Barruko orrietan Alberto Eguskizaren "Herensuge" izeneko komikia duzue. Obra honekin Albertok AEDren aurtengo sariketaren lehen saria eskuratu du.

#### FOTOZAHAR SARIKETA

Aste honetan badugu beste irabazle bat. Gutxiago falta da telebistaren zozketarako. Anima zaitetz zu ere!

(27. or.)

**MUGARRI** 

Arabako Etorbidea, z/g

Tfnoak: 79 07 44 - 79 07 54

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak .....	458744
------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraloak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak .....	798777

## 28 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "El turista accidental"  
Novedades (Bergara): "Cop"  
10,30etan.
- **Bertso afaria:** 9,30etan AEDen.
- **San Andreseko jaiak:**  
-18,30etan: jaien hasiera etxalfero jaurtiketekin.  
-19,30etan: erraldoi eta buruhandien kalejira.  
-22,30etan: Dantzaldia "Berakatz Band" taldearekin
- **Goardiako farmazia:**  
A.M. Morales, San Andrés.

## 29 LARUNBATA

- **Zinea:** "El turista accidental"  
Novedades: "Cop" 5, 7,30,10,30.
- **Musika emanaldia:**  
10,30etan Amayan, "Maite Idirin eta Euskal Kamerata".
- **San Andreseko jaiak:**  
-9,30etan: Maratoi herrikoia.  
-10,15etan: Gimnasia erritnikoa eta Zeramika-erakusketa.  
-12etan: Koadrila arteko futbol sala txapelketaren finala.  
-12,30etan: Kalejira.  
-16etan: Umeentzako jolasak.  
-22,30etan: Dantzaldia "Gaurkoherri" rekin.  
-00,00etan: Bigantxak.
- **Labegaraletako jaiak (Bergara):**  
-23etan: Dantzaldia "Berakatz Band" taldearekin  
-goizeko 4etan: Sokamuturra, Gantzontzilo eta Kulero lasterketa;  
Berakatz zopa.
- **Goardiako farmazia:**  
Torre, Ferrerías.

## 30 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "El turista accidental"  
Novedades: "Pathfinder".
- **San Andreseko jaiak:**  
-10etan: Ziklismoa.  
-13etan: Herri kirolak.  
-16etan: Jolasak, txokolatada,

pottokak; ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidua Iturripen.

- 22,30etan: dantzaldia "Iman"arekin.
- 00,00etan: Bigantxak.
- **Labegaraletako jaiak (Bergara):**  
-11etan: dantzaldia "Akelarre" rekin; ondoren, txokolatada.
- **Goardiako farmazia:**  
Español, Iturriotz.

## 1 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Más fuerte que el odio".  
Novedades: "Cop" 5, 7,30,10,15.
- **San Andreseko jaiak:**  
-11,30: Trikitixa.  
-12,30: Jubilatuentzako luntxa.  
-16etan: Umeentzako jolasak.
- **Goardiako farmazia:**  
Corcuera, Elcano.

## 2 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Más fuerte que el odio".  
Novedades: "Pathfinder".
- **Goardiako farmazia:**  
Irizar, Erguin.

## 3 ASTEAZKENA

- **Zinea:** 7etan, Zاراian (Aretxabaleta) "Eskorpion"; ondoren, zuzendaria eta ekoizlearekin elkarrizketa.
- **Goardiako farmazia:**  
Amezua, Santamaina.

## 4 OSTEguna

- **Hitzaldia:** AEDen 3,30etan, "Erligioa euskal emakumearen bizitzan" (Karmen Larrañaga)
- **Hitzaldia:** Monterronen, 7etan, "Giza baloreen aldaketa azkenaldi honetan" (J.M. Aranalde, E. Osa).
- **Zine kluba:** 8,30etan Amayan, "Extraños en un tren".  
A. Hitchcock-ena.
- **Goardiako farmazia:**  
A. Ruiz, Maalako Errabala.

## ERAKUSKETAK

- **Jon Mercero:** pintura-erakusketa, "del asesinato considerado como una de las bellas artes", Galería 44ean (Zerkaosteta, 18). Maiatzaren 15era arte.
- **Iñaki Larrañaga:** pintura-erakusketa "Zirriborroak", Etxe-Aundi jatetxean (Torre Auzo 9, Oñati). Igandera arte.

## IKASTAROAK

- **Margo eta marrazkia:** Adin guztientzat. Larunbatero: 10etatik 2etara. Matrikulatzeko epea: Maiatzaren 6ra arte Monterronen (larunbatetan, 10-2).

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio**

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo  
Uribarren.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164


**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 3.100 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Negarrak negarra dakar

Inguruak zuzenki eragiten du gugan. Gure zirkunstantziek —filosofoak zioen bezala— hain desberdinak izan daitezke non erreakzioak zeharo diferenteak sor ditzakeen, zioguna berbera izan arren.

Jakina den bezala, barrea kutsakorra dugu. Aldameneko norbait barrezka hasten denean berehalaxe pizten da gure ezpainetan irribarra. Hortik zantzora, gehienetan, ezer gutxi. Ordea, inoiz ez dut entzun negarra ere nolakotasun berdinekoa denik, hots, negarrak negarra sortarazten duena. Baina dena da posible eta, ziur aski, zaku berberean sartu ahal izango genituzke barrea eta negarra, antzerako zirkunstantzian mugatuko bagenitu.

Subjetibotasunak markatzen digu, ia beti, gure izakerak harturiko bidea. Bizitza —mekanismoak zuzentzeko eredu zehatzik ez denez gero, nor bere burua arautzen du, unean uneko eta tokian tokiko baldintzak gogoan harturik. Hortik, hain zuzen ere, gizakiak oro desberkinak izatea. Gutariko bakoitza mundu diferente bat da, aldeko eta kontrako nolakotasunez apainduta.

Iragan Otsailaren 25ean, Madri-

letik Hondarribiara zetorren hegazkinean gertaturikoa ez zaie bidaiari hain erreazki ahantziko. Ekaitza zen. Hegaldia, beraz, atzeratu xamar irten zen Madriletik. Iberia nahiz Aviaco konpañiek aspaldi ohitura-tuak gaitu atzerapenetara; hori horrela delarik, ez zukeen besterik gabe hainbeste garrantzirik izango, behin bederatzi mila metrotara iritsiz gero jazotakoa gertatu izan ez balitz.

Haizea gogor jotzen ari ei zen. Ahotsgailuetatik “les rogamos sigan haciendo uso del cinturón de seguridad” bidaiari oharterazi ahala, azafata negarrez hasi zen. Asma al dezakezue bidaiari gizaraxo haiek neskaren begietan malkoak ikustean sentitu zutena? Teoriaz, ontzibidaztien lasaitasuna eta fidantza goian irauteraztea betebehartzat zuen azafata harek, bildurra, ikara, oihuak eta negarra sorterazi zituen. Ez zen, ez gutxiagorako.

Arratsalde hartan, Hondarribiara zetozen gizaki pairutsu haiek ez zituzkeen ekaitzak berez negarteraziko; eragile zuzena, berriz, azafata negartiaren malkoak izan ziren.

*Josemari Velez de Mendizabal*


# LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBA

Auto-Eskola

Zarugalde, 46

Tfnoa: 79 29 93

79 14 01

ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA  
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**

Liburu eta oparidenda  
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**ALISA  
ASEGURUAK**

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

**ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Kerik ez, mesedez

Ezagunak dira aspaldiko urteotan Erakunde Publikoek-Gobernu Zentralak eta Eusko Jaurlaritzak, batez ere, tabakoaren kontra egin dituzten kanpainak, tabakismoaren kontra halako giro bat sortu dutenak. Eta, ez dago esan beharrik inoren zigarroren keak sufritzen ditugunok kanpainak eta, beraien ondorioz gizartean sortu den kontzientzia. Orain erakunde publiko horiek beste urrats bat eman beharko lukete herritarrok beste ke mota batzu ere sufritu ez ditugun. Izan ere, Musakola aldean bizi gare-nok, behintzat, izugarritzko tufadak jasan behar izan bait ditugu gure auzotik kalera etortzean gure aldamentean pasatzen diren kamioitzarrek kea aurpegira botatzen digutenean, horretaz gainera ur-putzuetako uraz errukigabe zipriztintzen ez gaituztenean, noski. Zenbat pakete-tabako erretzen ditugu egunero kaleko joan-etorri hauean, kamioien kea dela eta? Batek daki.

*Euskitze*

## Urkulu dela eta

ARRASATE PRESSEK irakurleoi eskaintzen digun txoko honetaz baliatu nahi nuke arazo txiki bat plazaratzeko.

Urkuluri bueltak ematen- oinez, jakina -oso zalea naizela esango dut lehenik. Beraz, oso ondo iruditu zitzaidan Urkuluko zati bat peatonalizatu eta ezkerretatik ibilgailuz joatea debekatzen duen seinalea jarri zutenean. Baina kontua da, ikusmen labur, aurpegi gogor edo gibel handikoren batzuk ez dutela jaramonik egiten, eta ia lehengoan gaudela! Han, inguruko baserrietan bizi ez diren askoren autoek muturra aurreraegi sartzen dute(inolako beharrik gabe!). Sarritan errepresio-neurriak baino heziketa-bideak hobe izaten dira, baina uste dut ertzain edo udaltzain lerdenen batek noizean behin sustoren batzuk eman beharko lituzkeela seinalea errespetarazi eta helburua zati hura oinezkoentzat eta inguruan bizi direnentzat bakarrik izatea- lortu ahal izateko. Hala bedi!

## Zer gertatzen da Arrasaten?

Aspaldi honetan oso harrিতuta nago Arrasateko jende gaztearekin. Gaurko gazteok poteatzen bakarrik pentzatzen dute. Herri honetan beste gauzarik ez da egiten jende gazte artean.

Hor daukazue, adibidez, azken igande hauean antolatu den Sebero Altubeko plazan trikitilari gazteen emanaldiak. Zer gertatu da honekin? Oso deprimentea iruditu zait Sebero Altubeko plazara arrimatu eta han bakarrik umeak euren gurasoekin ikustea.

Zer behar dugu gaurko gazteok "Rock jaialdiak" bakarrik kanutoak erretzeko?

Gero esaten dugu Arrasaten ez dagoela ezer eta ez dela ezer antolatzen. Zer nahi dugu, ba?

Noiz arte egon behar dugu honelako gauza deprimenteak ikusten? Anima gaitetzen gazteok! Uste dut badaukagula gauza mordo bat antolatzeke hemen Arrasaten eta.

Ea ba, zeozor lortzen dugun denon artean eta, hemendik aurrera beste haize batzuk jotzen duten Arrasaten.

A. A.

## Zinema ekologista

Zuzendari jauna:

Oskarrik irabazi ez badute ere, oso gustora ikusi ditut animaliekin zerikusirik zeukaten bi filme, Alai Zineman biak: "Hartza" eta "Gorilak lainoepen".

Batak zein besteak irudi benetan ikusgarriak eskaintzen dituzte, naturaren edertasun eta hauskortasuna eta gizakion zuhurkeriaren zentzugabekeria agerian jarriz.

Beharbada, munduan zehar hedatzen ari den izadiarekiko sentiberatasunak badu zerikusirik filme berri hauekin. Hala bada, poztan naiz eta nire ongi etorrikeri beroena luzatzen diot ondo egindako filmegintza ekologista berriari.

*J. A. Mendibe*

# Zer deritzozue Urbian pista berria egiteari?



**Felixin**  
(ikaslea)

Ez nago ados, hori egitea Urbia izorratzea litzateke. Jendeak hara joan nahi baldin badu, oinez joan dadila edo besterik ezean, lehendik dagoen pista konpon dezatela.



**Karmen Alonso**  
(etxeoandrea)

Egia esan gai horri buruz ez dakit gauza handirik, baina beno pista egitekotan kontrolatuta egongo den pista izan behar duela uste dut. Ez edonork erabil dezakeen pista, beharrik dagoenean erabiltzekoa izan beharko luke.



**Pilar Ormazabal**  
(etxeoandrea)

Ez dut ondo ikusten. Pista eginez gero hura inbasioa litzateke, alde guztietan gertatzen den bezala.



**Karmelo Agiriano**  
(tabernaria)

Ez nago ados, hara kotxeak ez direla sartu behar uste dut. Urbiak jendea oinez joateko baso bat izan behar du eta ez kotxez. Hara kotxez joateak ez du zentzurik.

★ **L E N I Z** ★

**A U T O E S K O L A**

ARRASATE

ESKORIATZA

**IKASKUNTZAK**

ALDAY, 9-TF. 794604

ARRANA, 13-TF. 793659

**TEORIKA**  
ORDENADOREAKIN

**TXOFERTZA**  
VOLKSWAGEN  
GOLF TURBO

**KABINETE**  
**MEDIKOA**

**Medikuntza**  
**Digestibidea**  
**Endoskopia**  
**Ekografia**  
**Analisiak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

**ERROTULAZIO KONTZEPTU BERRIA**



**EYSKO-ROT**

- FURGONETAK, ERAKUSLEHIOAK ETA FATXADAK ERROTULATU
- BARRU ETA KANPOKALDEAK SEINALEZTATU
- ANAGRAMAK ETA LOGOTIPOAK SORTU

Gipuzkoa Etorbidea z/g (Legarre pabiloi indutrialia) Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

“PNV, PSOE, EE eta UCDeko Independienteen koordinakundeak Gobernuari egindako eskari-proposamena, Euskadiko Autonomi Estatutua premia bidez tramita zezan, izan zen Gipuzkoako Biltzar Nagusiek aurkeztu eta onartutako lehenengo mozioa. Biltzar Nagusi hauek 1979ko Apirilaren 22an, igandean, Arrasaten berrezarri ziren. Orduan zegoen Alkateari, Jose Antonio Ardantza, egokitu zitzaion Biltzar Nagusiak “eratuta” deklaratzeari. Azkenengo bilkuratik 103 urte igaro ziren”.

(*Diario Vasco egunkarian*)

“Pio Barojaren nobelaren (“El cura de Mauleón”) bigarren alde, Mauleón (Mondragón) euskal herriko Jabier Olaran abadetxoari dedikatua, da errelatuaren ardatza. (...) Mauleón, sinboloa da: aldaketa ekonomiko eta soziala, bere industrializazio eta burguesia aurreratuarekin, eta politikoa, errelatuko parte bat Errepublikara garaikoa da eta. Euskal Herria “bere hirigunean industrialia eta modernoa” da erabat, eta “inguruetan baserri giroa eta bizimodu arkaikoa”

(*Ignacio Elizalde, Deustuko Unibertsitateko irakasleak “El País Vasco en los modernos escritores españoles” liburuan*)


“Bibolina hartu nuen beste gauzarik ez zegoelako dendara eroatera joan nintzenez; magisteritza bukatu nuenean irakasle poloniar bat etorri zen eta berak animatu ninduen seriotan hartzeko, oso berandu hasi nintzen eta. “Zerotik hasi behar duzu” esan zidan irakasleak, ordurarte ikasitakoak ez zidalako ezertarako balio. Lana lau aldiz handiagoa izan da. Gainera, bibolinarekin urte asko jotzen daramazun arte ez dakizu zein ondo sonatzen duen”

(*Eli Azurmendi, “Nertha” musika taldearen partaidea arrasatearrak “Hemen” aldizkarian*)

“Harrokeria da, baina Oñatiko Alkatea edo Diputatu Nagusia izatea aukeratu behar izan nuen, eta Alkatetza aukeratu nuen”. (...) Hiru bider Alkate hautatzea ez da ohizkoa eta geroaz ez da baietzik ez ezetzik. Eli Galdosen eritziz, “burua argitzeko” politiko batek ez luke kargu batean 10 edo 12 urte baino gehiago eman behar.

(*Estrella Intxausti kazetariak DV egunkarian*)

**Zein helbururekin antoltu duzue Arrasaten Euskadiko lurralde selekzioen 1go igeriketa txapelketa? Eta zein da egiten duzuen balorzioa?**



Estatu mailako autonomi selekzioen txapelketarako jendea aukeratzea zen txapelketa honen helburua. Txapelketa hau nahiko eksklusiboa izan da, izenak berak dio, lurralde bakoitzetik probako bi igerilari baino ez ziren onartzen, baina hau onenak aukeratu nahi zirelako egin da. Arrasaten egin izana oso erraz azal daiteke. Junta bat dago, txapelketak eta nork antolatu behar dituen erabakitzen duena eta junta horrek Arrasateko kluba izendatu zuen txapelketa hau antolatzeko, kontutan izanik Arrasatek ez zuela inoiz txapelketa bat antolatu eta, era berean, Arrasateko igerilarietara indarra emateko.

Txapelketak arrakasta izan du, markak hautsi bait dira, nahiz eta igerilariak ez duten beren forma fisikorik onena Ekaina arte lortzen. Markak haustea zen, hain zuzen ere, txapelketa honen helburua.

Federazioaren aldetik zorionak jaso ditugu txapelketak izan duen antolakuntza onagatik. Esan beharra dago Polikiroldegiko jendea oso ondo portatu dela eta gai honetan lagundu egin digula. Txapelketa ikustera nahiko jende etorri da eta pozik gaudela esan behar da. Etokizunerako Arrasaten txapelketak antolatzen jarraitzea da gure helburua. Hau beste batzu antolatzeko hastapena izan da.

*Carlos Conde*  
Igeri taldeko entrenatzailea

## Obea

**Ate automatikoen ezarpena**

**Konponketak Berriztapenak**

**Galdetu prezioak**

**IGONGAILUEN MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea  
Tfnoa: 79 12 08

## Jose Aranzabal

**ELEKTROGAILUAK**

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

## KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

## PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

### NABE INDUSTRIALEN

### SALMENTA

### Mendi-Etxebarrin

**445 m<sup>2</sup> tatik aurrera sarbide zabalarekin**

\*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

\*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

\*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

## LAN KIDE AURREZKIA



**LAGUN-ARO ASEGUROAK**, bere hedatze-politikaren barruan, behar du:

### LEGE-AHOLKULARIA

(Aretxabaletako Zerbitzu Nagusiak)

(Erreferentzia: 581/89)

Bere eginbeharra hauxe izango da, Zuzendaritza Nagusia eta departamentu ezberdinak gai juridiko eta fiskaletan aholkatzea, eta Aseguroaren alorrari buruz Estatu eta Komunitate eremuko legislazioa aztertzea.

Zuzenbidearen profesionala bilatzen ari gara, lege -ezagupen sakonak eta analisi gaitasun haundia dituen eta Aholkularitza- lan bereziak egingo dituen, ingelesa eta/edo frantsesa jakin beharra duen.



Enpresa Saila / Lan Kide Aurrezia  
Pertsonal Departamentua. 34 postakutxa. ARRASATE

# BIDEO-EMANALDIA



## “SAMSON eta DALILA”

Tokia: **MONTERRON KULTUR ETXEA**

Eguna: **APIRILAREN 29an**

Ordua: **Goizeko 11,30etan eta  
arratsaldeko 4 eta 6etan**

Prezio: **50 PTA.**

Sarrerak: **MONTERRONEN**

ANTOLATZAILEA: ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA



**alceop**

## KALITATE ZUZENDARIA

Gerentearen ardurapean, enpresako kalitatearen ardura hartuko du, estrategiak garatuz eta ezarritako kalitate-helburuak lortzea ekarriko dituen ekintzak bultzatuz.

### ESKATZEN DA:

- \*Goi mailako Injinerua edo Injineru Teknikoa, elektronikoa nahiago.
- \*Gutxienez 3 urteko esperientzia antzeko lanpostuan.
- \*Ahozko ingelesa eta itzulpen teknikoa.

## MERKATAL TEKNIKARIA

Merkatal zuzendaritzak gainbegiraturik, salmenta-sareari lagunduko dio. Lanpostuak, bere alde teknikoan, prestakuntza handia garantizatzen du, hala nola, automatismo elektrikoak, elektronika, automatika, robotika eta makina-erreminta. Merkatal alorra hezkuntz arlorra zuzenduta dago.

### ESKATZEN DA:

- \*Erdi Mailako Teknikari Elektronikoa
- \*Esperientzia ez da beharrezkoa.

### ESKAINTZEN DA:

- \*Bazkide egitea
- \*Mailaren eta aportazio profesionalaren araberako lansaria
- \*Diskrezio handia

**Interesatuak**, datu pertsonalak eta curriculum profesionala 20500 Arrasateko 81 postakutxara, Pertsonal-Departamentuari zuzenduta, premia bidez bidaltzea eskatzen dugu.



**T x a n d a k a**

**Heziketa problema milioi askoren problema ere ba al da?**

Gizabidea Fundazioa hainbat laguntzaile jatorrenetako batek duela gutxi idatzi digu, beronen helburuei buruzko informazioa argitaratzeko eskatuz.

Slogans batzuk aipatzen zituen:

“Heziketak soluziobiderik ba al dauka?”

“Mila milioi Heziketarako”

Hauxe da Fundazioak hurrengo bost urteetan lortu behar duen kopurua.

Edozeini bi galdera bururatzen zaizkio desafiotzar honen aurrean: Zergatik? Eta zelan?

Zergatik mila milioi?

Honen erdia edo bikoitza izan zitekeen. Garrantzitsuena ahaleginaren justifikazioa da. Gizabidea Fundazioa sortzearen ideia Jose Mari Arizmendiarrizarena izan zen. Honek, gauzak aurrez esateko zuen gaitasunarekin, epe laburrera, eta hau gertatzen ari da, ikastetxeak maila garrantzitsuetan subentzionatuko zirela ikusi zuen, baina, era berean, parametro konkretuetara mugatuta. Beraz, ideia eta proiektu berriek ez zuten autonomia ekonomikorik izango, subentzioek ohizko kostuen portzentai bat bakarrik estali behar zuten eta.

Fundazioak, ikerketa, sustapen eta prestakuntzaren inguruan, gure Bailaran sor daitezkeen ideia berriak ahalbidetu, bultzatu eta gauzatu nahi ditu.

Horrelako proiektuak lagundu ditu:

O.H.Z. Ordenadorea Heziketaren zerbitzuan.



A. Gorroñoitia\*

GOIER. Atzerriko goi mailako ikasketa gestiorako zentrua.

SAIOLAN. Enpresa-Jarduerak hasten dituztenentzako prestakuntz zentrua.

Doktoretza-tesiak burutzea.

Literatur lehiaketak.

Etab. etab...

Zelan?

Iharduera hasi zenetik, duela bost urte, Hezibidetik (Eskola Politeknikoa, Almen, Irakasle Eskola eta beste batzuk) jaso zituen ondareak edukitzeaz gain, 200 milioi pta.ko kapitala lortu du eta bost urteren buruan 1.000 milioi pta.tara heltzeko helburua hartu du. Honako baliabide hauek ditu:

Emale instituzionalak, batez ere, kooperatibak, beren F.E.O.S.ren bidez laguntzen dutenak.

Emale partikularrak, (normalean bost urtetan) urteko kuota batekin laguntzeko konpromezua hartzen dute. Batzuk dagoeneko bost urte daramate aprotazioa egiten. Hauei, konpromezua oraintxe amaitzen zitzaielarik, luzatzeko eskatu zaie eta, oraingoz, erdiak baino gehiagok baietz erantzun du. Emaleak lortzeko kanpaina berri bat egiten ari da.

Finantz inbertsioaren orientazioan, bere egunean Lankide Aurrezkiak eta Lagun Arok, aholkatzten eta laguntzen dute Fundazioa.

Gai honetaz interesaturik daudenentzako informazio idatzia dago, toki honetan eska daitekeelarik, 23 apartatua, Gizabidea Fundazioa, Arrasate

(\* ) FAGOR-eko Lehendakaria

**laburrak**

✓ **Maitzaren 1a**

Maitzaren leian honako kontzentrazio hauek izango dira: Bilbon: LAB (La Casillan, 12etan) eta USO. Donostian: UGT eta CC.OO, batera doaz lehenengoko aldiz azken 10 urtetan: 12etan Hotel Londresen; ELA (Anoetan, 11,30etan); CNT, ESK-CUIS eta Emakumeen Asanblada (11etan Boulevarden).

✓ **San Juan jaietako kartela**

Jai hauek iragarriko dituen kartel-lehiaketa honako arau hauekin zabalitzen da: edozein arrasatearrek har dezake parte; kartelaren neurriak: 50-65 zm. ; teknika libre; testu hau izan behar du: San Juan Jaiak 89 Arrasate; saria: 50.000 pta.; egilearen nortasuna azaldu gabe eta atzekaldean lema batekin aurkeztu behar dira kartelak. Kartazal, itxi batean lema bera eta egilearen datuak; Maitzaren 19a baino lehenago Udaletxera bidali behar dira; epaimahaia Maitzaren 20an eguerdiko 12etan bilduko da, irabazlea aukeratzeko.

✓ **Parisera**

Gazteria Batzordeak Maitzaren 24etik 29ra bidai bat antolatu du Parisera. Bus-literan izango da, eta prezioa 9.400 pta.koa. Prezioan bidaiak kulturalak sartzen dira; janaria, gazteen kontura. Inskripzioak: Maitzaren 2tik 15era (Gazteria Departamentuan).

✓ **Garibai etxea**

Udalak onartu du Garibai etxean Gazteentzako Informazio-Bulegoa kokatzeko Gazteria Batzordeak eginitako proposamena. Kokatze hau behin behinekoa izango da. Orain Zerbitzu Teknikoek Garibai Etxearen konponketarako proiektua egin behar dute. Bulegoa martxan ipintzeko Eusko Jaurlaritzak 500.00 pta.ko dirulaguntza eman du.

**BENGOA**

**ERAIKUNTZAK  
ETA  
BERRIZTAPENAK**

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

## Arrasate Musikalek neurriak hartu behar defizitaren kontra borrokatzeko

Hilaren 14eko Batzar Oroko-  
rean Arrasate Musikalek duen 5  
milioiko defizita ezabatzeko, eta  
Udalaren proposamena ikusiz,  
honako proposamena onartu zen:  
bazkideen kuota %8an igo, alde  
batetik; eta irakasleen berregokitzea  
eta asignatura batzuetan ikasle be-  
rriak murriztea, bestetik. Udalaren  
proposamena asignatura batzuk aka-  
demiatik kentzea zen.

Arrasate Musikalek, aurtengo  
ikasturterako 15 milioko subentzioa  
(50 milioko aurrekontua du) eskatu  
zion Udalari; honek, ostera,  
10.700.000koa eman zion. Esan



J. A. Oveja, R. Landriscini, J. L. Castillo eta J. Arzamendi

behar da defizitaren arrazoia duela  
bi urte egin zen irakasleen erregular-  
tzean datzala, eta asignaturak mur-  
ritztea ez dela soluzioa. 1987 arte  
irakasleek ez zuten kontraturik, eta  
orduka kobratzen zuten. Horregatik,

egitura mantendu ahal izateko.  
Beste beharren artean, dedikazio  
osoko gestore baten beharra  
azpimarratu zuten. Akademian 600  
ikasle daude, 1.064 matrikula eta 41  
irakasle.

irakasle bakoitzaren  
urteko kostua  
700.000tik  
1.900.000 pezetara  
pasatu da.

Bai Udalak bai  
Akademiak, zentrua  
maila ertaineko  
kontserbategi (hau  
da, babesle ofiziala-  
rekin) bihurtzea  
nahi dute. Baina,  
Batzordekideen esa-  
netan, beharrezkoa  
da subentzio han-  
diagoa orain dagoen




Asteartean Urkuluko urtegiak itxura hau zeukan

## Urkulu beteta

Neguan egin ez  
duen euria udabe-  
rrian egiten ari da.  
Hau dela eta, oso  
denbora gutxitan  
Urkuluko urtegia  
bete egin zaigu.  
Ura argazkian  
agertzen den neurri  
horretara iritsi da  
(argazkia astearte-  
koa da); eta horrela  
jarraituz gero, ez  
da hor geldituko.

## ✓ Langabetu gutxiago

INEMek emandako datuen ara-  
bera, aurtun Deba Garaiko langabe-  
tuen kopurua, iazkoaren aldean,  
%6a jeitsi da. 1988ko Martxoan  
4.414 langabetu zegoen eskualdean;  
urtebete beranduago, berriz, 4.149  
dira (gutxi gora behera, %40a arra-  
satearrak). Hauetatik erdia 25 urte  
baino gazteagoak ditugu, eta hiruta-  
tik bat, bere lehenengo lanbidearen  
zain dago. Izan ere, Deba Garaia Gi-  
puzkoan langabetu gutxien duen es-  
kualdea dugu, probintziako bataz  
bestekotik bost edo sei puntu behera,



## AHIZKE-CIM Coop. E.

ACEIG-FECEIko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana  
Frantsesa  
Ingelesa

Haurrak  
Gazteak  
Helduak  
Enpresak

Maila guztiak

Azterketarako prestakuntza

Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE

Tfnoa: 761954 BERGARA

## berango

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atea  
Legarreko pabiloi industrialak  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

## Eraikuntzako langileak etengabeko greban

Hilaren 24ean hasita, Gipuzkoako Eraikuntzako langileak etengabeko greban daude. Huelga CC.OO., UGT eta ELA sindikatuek deitu dute (LABek, Arrasaten behintzat, ez dauka delegaturik alor honetan), eta Deba Garaian erabatekoa izan da aste honetan.

Grebaren helburua Lurraldeko Konbenioa eta helburu hauek lortzea da:

— Alor honen erosahalmena beste alorrenera egokitzea;

— Obretako kontratu finkoak plantilako kontratu finko bihurtzea;

— Behin behineko kontratuak ekonomikoki zigortzea;

— Lan-iharduera txikitzea;

— Obretan segurantza neurri egokiak hartzea;

— Lanbide-Heziketa ezartzea alor honen profesionalitatea duintzeko eta dagozkion neurriak hartzeko;

Aste honetan goizero 9etan langile talde bat bildu izan da

San Juan Auzategian, eta asteazkenean 5etatik aurrera errepide nagusia moztu zuten.

Kanpazarreko AKEiko errausketako langileek ere grebarekin



Asteazkenean langileek errepidea moztu zuten

bat egin dute. Grebak, ostera, zabor-bilketari ez dio eraginik sortuko, zerbitzu honetan diharduten langileak ez bait daude eraikuntz eta kontratu-konbenioaren barruan.

## Zentsu berriak

1988 urteko Urtarilaren leko dataz, Hauteskunde-Erroldaren zerrenda berriak Udalaren aurrean izango dira Apirilaren 30arte, 10etatik ordubatera eta 3,30etatik 6etara. Zerrenda hauek izango dira 1989ko Ekainaren 15eko Europako Parlamentuko Diputaturako hauteskundeetan eta hurrengoetan erabiliko direnak, 1989ko Ekainaren



Jende asko hurbiltzen ari da zentsua konprobatzera

15ean. Erreklamazioren bat egin nahi izanez gero, Idazkaritzako Bulegoetan egin behar da.

### ✓ Fagorren etekinak

1988an Fagorrek 3.013 milioiko etekin garbiak izan zituen. Fakturazio osoa 64.702 milioikoa izan zen; "Cash-flow" a 6.365 milioikoa eta 5.589 milioiko inbertsioak izan ziren ekitaldi honetan. Dibisiorik dinamikoenak Industri Osagaiak eta Ingeniaritza eta Tresneri Ondasunak izan ziren.

### ✓ Lourdesera erromeria

Zabalik dago jadanik Maiatzaren 26tik 29ra Lourdeseko erromerira joateko izena emateko epea. Inskripzioak astearte eta ostiraletan, 5,30etatik 7etara Caritasen egin daitezke.

# LASAGABASTER

# JANTZIDENDA

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai, 9 Tfnoa: 798997



Sindikatuok ospital berria exigitzen dute

## Sindikatuak ospitalaren egoera salatu

Aste honetan ELA, UGT eta CC. OO. sindikatuak astelehenean Mankomunitate eta Ospitalaren aurrean konzentrazioak egin zituzten ospitalaren egoera salatuz. Sindikatu hauen ustez, Eskualdeko Ospitaleak ez ditu, Deba Garaiko populazioa

kontutan harturik, beharrezko minimoak betetzen. Deba Garaiko Ospitaleak 68.315 biztanleri eman behar dio harrera; horretarako 104 ohe (1/656 biztanleko), 145 langile (1,39/oheko) eta 13 espezialista besterik ez ditu. Lurraldeko beste ospitalekin konparaturaz, hemengoak duen azpiegitura askoz txarrago da.


Anbulatorioan, bestalde, ez dago espezialistarik; eta mapa sanitarioak oraindik erregulatzeko jarraitzen du. Sindikatuak Anbulatorio eta Osasun Zentroetan honako espezialidade hauek izan daitezela exigitzen dute: Radiodiagnostikoa, Laborategia, Analisi Klinikoak, Odontologia,

Oinarrizko Zirugia, Oinarrizko Traumatologia, Bihotza eta Birika eta Osasun Publikoa. Honetaz gain, beste toki batetan kokaturik (gaur egungoa gune industrial batetan dago) eta 2,5 ohe mila biztanleko izango lukeen Ospitale berria eraikitzea exigitzen dute.

Azkenik, hau dena betetzeko, Mankomunitate mailan eta sindikatuak parte hartuz Batzorde bat eraikitzea proposatzen dute.

### Administrazioaren postura

Sanitateko kontseiluordea den Dolores Ruiz Iglesiasen eskualdeko alkateekin astelehenean izandako bileran esan zuen ez dagoela ospital berria eraikitzeko asmorik. Administrazioaren asmoa hemendik hiru urtera orain dagoena birmoldatzea da. Orain lehentasuna ematen diote "plan funtzionala" delakoari; honen helburua ospital bakoitzaren pertsonala eta azpiegiturako beharrak zeintzuk diren zehaztea da.



Denbora gutxitan aldaketa handiak izaten ari dira Arrasaten

## Aldaketa

Aurrera doaz Musakola auzoa zeharo alda duten obrak. Sahiesbidea eta Industrialde berria elkartu

itzuliko balitz 1992an, adibidez, lehenengo erreakzioa bere buruari non dagoen galdetzea litzateke. Aurrerapena.

dira gune honetan, obrak aurrera eramateko errekaren ubidea ere aldatu dutelarik. Tailer txikiak osatutako industrialdeak lehengo fabrikatzaile ordezkatzen ari dira azkenaldi horretan. Orain 5en bat urte dela alde egindako arrasatear bat

### ■ José M<sup>a</sup> Bengoa

Jose M<sup>a</sup> Bengoa datorren Urriaren 1ean Aita Santuak beato izendatuko du Erroman. Bengoa Gesalibar auzokoa zen eta Gerra Zibilean, beste 25 pasiotarrekin batera, Damielen (Ciudad Real) hil zuten.

### Jaiotzak

Igorra Heriz *Ikeia*, 16an.  
Narbaiza Nuñez *Elene*, 18an.  
Mancha Romero *Leire*, 19an.  
Sánchez Aguirre *Aitor*, 22an.  
Hernández Gil *Leire*, 23an.

### Ezkontzak

Benigno Salgado González & Vera Lucía Acevedo Costa, 24ean, zibilez.




## LARRINGAN

auto gidarien eskola  
**KLASE TEORIKOA**  
**IRAKASLEAREKIN**

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE


Hilaren hasieratik 30en bat lagun arin arin eta fandangoa dantzak ikasten ari dira ostirale-  
ro. Klaseak "Lore Gazteak" taldeko sei irakasle ematen dituzte Portaloi ondoan duten lokalean. Ikastaroak bi hilabete iraungo du.



Mickel Jackson-ek ez du hobeto dantzatzen

**Batzokian aste gastronomikoa.** Eibarko Artola, Zarautzeko Argiñano, Olabariako Castillo, Bergarako

Lasa eta Batzoki bertako sukaldariak plater batzuk prestatu dituzte jendaurrean. Asteartean Patxik, Mikelek eta Iñakik, Argiñano jattetxearen sukaldariak "Ahatea fua saltsarekin arraultze erara", "pizza", "legatz buztana papilote erara" eta "tatin-tarta" prestatu zituzten.



Sukaldariak gero eta gauza "arraragoak" prestatzen dituzte

Eugenio Ramos eta Espe Zubia gazteak Arantzazun ezkondu ziren joan den Martxoaren 11ean. Ikusten duzuen bezala, beltzez ezkontzeko moda itzuli egin da. Pajaritak ere gero eta gehiago gustatzen zaizkie ezkonberriei. Ez dakiguna da modak nork ezartzen dituen.

EPELDE



## izen propioak

□ Luis Ignacio Ruiz de Alegria, 33, donostiarra, Arrasateko Abesbatzaren zuzendari berria izendatu dute. Luis Eskoriatzako Gorosarri koraleko zuzendaria izan zen bost urtez. Donostiako Orfeoian ere abestu izan du. Ogibidez ekonomista da eta Eusko Jaurlaritzan egiten du lan, Lan Sailean, hain zuzen.

□ Arrate Elkoroiribe, 30, ETAPm-ko ekintzaileohi bergararra, etxera itzuli da espetxean zortzi urtez egon eta gero. Bergizarteratze neurrietara bildu ondoren, joan den 18an erregearen indultoak jaso zuen Logroñoko gartzelan. 1980an Bergako mendi-koartela asaltatu ostean gerra kontseilu batek 35 urtetara kondenatu zuen.

□ Iñaki Aldekoa, 27, idazle ofizialak aurtengo "Ignacio Aldecoa" saria irabazi du -400.000 pezeta eskuratuz- "Begirada galduen nostalgia" ipuinarekin. Iñakik euskarazko klaseak ematen ditu Donostiako Magisteritza Eskolan. Orain arte argitaratu dituen lan gehienak euskal idazle esagunen lanen iruzkin eta komentarioak izan dira, azkena Bernardo Atxagaren "Obabakoak" liburua.

□ Joserra Gartzia, 35, idazle le gazpiarrak oraingo honetan "Gau bat gauekoen artean" gaztetxoentzako liburua argitaratu du Erein argitaletxearen Auskalo kolekzioan. Joserra Mondragoeko ikastolako irakaslea izan zen, lau urtez. Orain ETB1eko "Hitzetik hortzera" bertsolaritzari buruzko programaren zuzendaria da.

□ Xabier de Zerio, 40, Bergaran bizi den eskultore nafarrak oraintsu "Euskadi noizbait..." izeneko eskultura egin du eta erakutsi Bergarako Udaletxeko bulegoetan. Argazkigintzan hainbat lan egin badu ere, eskulturan oraingoz ez du erakusketarik egin. Xabier irakaslea da Bergarako Eskola Publikoetan.

**Eroski Kontsumatzaileen Komitea**

**Informazioa eta Formazioa.**

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

# Arrasateko Udal Azokaren geroaz

Arrasateko azokan postua duten komertzianteei, postu hauetako kontsezioa 1990eko Abenduaren 31n amaitzen zaie. Ondorioz, Udalak azokarekin zer egin erabaki behar du. Hau da, azoka dagoen lekuan utzi, berri bat eraiki edo azoka kendu, hiru aukera hauen artean egokiena zein den erabaki behar du. Azken egun hauetan, egunkarietan denok irakurri ahal izan dugu, AIEI (Azterlan eta Ikerketarako Euskal Institutua) erakundeak azokaren bidegarritasun-azterlanari ekin diola. Gaiari buruz erabakia hartzean, Udalak nondik nora jo behar duen adieraztea da azterketa honen helburua.



Jakina denez, asteazken eta ostiraletan eskaintza eta jende kopurua ugaltu egiten da

## Udal merkatuen betebeharrak

Udal azokak sortu zirenean, beren funtzioa oso argia zen, bertako produktuen merkaturaketa erreztea eta populazioa jakiz hornitzea. Baina bertako produktzioa jaistean, jakien oferta ugaltzean eta komertzioak ugaltzean, momentu batean izan zuten indarra eta zentzua nola-bait galdu egin dutela esan daiteke.

Eusko Jaurlaritza orain dela gutxi kaleratutako ikerketa batek, erosketak egiterako orduan, Euskal Herriko etxekoandreen %24ak baino ez duela merkatura jotzen agertzen du. Beste lurralde batzuekin parekatuz gero, portzentaia oso txikia da; Kataluñan adibidez, %56a joaten bait da merkatura.

Ikerketa horrek etxekoandreek betiko denda edo supermerkatuak nahiago izaten dituztela argitzen du. Horren ondorioz, herrietako merka-

tuek gaur egun etxekoandreek dituzten erosketak ohituretara ez dutela egokitzen jakin adierazten da. Merkatuen indar galtze honetan faktore askok eragiten dute, hala nola eguneroko erosketen gutxitzeak, familia txikitzeak, kotxe ugalketak edo

emakumeak lanean hasteak, besteak beste. Beraz, faktore guzti hauek kontutan izanik, Udalak merkatura izaten segitu behar duen edo ez erabaki behar du.

## Arrasateko Udal Azoka

Arrasateko Udal Azoka orain hogeiren bat urte gutxi gora behera

oraingo Sebero Altube enparantzatik Ferialera eramane zuten. Bertan dauden postuak edo saltzaileak hiru eratakoak direla esango dugu. Postu itxiak 19, azokaz azoka doazen saltzaileak 60 eta baserritarrak 50. Azoka lekuz aldatu zenean postuak hogeitertarako adjudikatu zituzten eta epea 1990ean bukatzen da; beraz, datorren urtean.

Udalarekin duten harremana desberdina da hiru kasuetan. Postu itxietakoak, postua hartu zutenean diru kopuru bat eman behar izan zioten Udalari eta ondoren hilero hilero errenta ordaindu.

Azokaz azoka aritzen direnak hilero ordaindu behar izaten diote Udalari azokara etorri ala ez etorri. Azkenik baserritarrek azokara etortzen diren bakoitzean ordaintzen diote Udalari, baina azokara agertzen ez badira ere beren postua errespetatzen zaie.

Bertan eskaintzen diren produktuak ugariak dira eta eguraldiak eta beste faktore batzuk ohizko dendetan baino eragin handiagoa dutela esan behar da. Aurtengo negua, esaterako, baratzerako oso negu txarra izan da eta horrek, merkaturan eragin handia izan duela adierazi digu bertan administrari gisa aritzen den Antton Etxenagusiak, baserritar batzuk hiru hilabetetan edo ez dira merkatura beren produktuak saltzera joan eta.

***“Euskadiko etxekoandreek nahiago dute denda edo supermerkatuetara joatea. Bakarrik %24a joaten da merkaturara”.***

Merkatuak duen funtzionamendu-era ere desberdina da ohizko dendekin gonbaratzen badugu. Ohizko dendetan, salneurria finkoa izaten da, baina merkaturan azken orduan salneurri hauek jaitsi egiten dira, ekarritakoa bueltan ez eramatearren. Dena dela, ohitura hau gal-

tzen ei doa, jende ugari azken momentuan joateko zuen ohitura nabaria bait zen. Bestalde, baserritarrek salneurriak jartzeko orduan ados jartzen direla esan daiteke, nahiko salneurri antzekoak jartzen dituzte eta; aldiz, azokaz azoka aritzen diren artean kompetentzia handia dagoela adierazi digute. Batzuk oso produktu gutxi ekartzen bait dituzte eta salneurri merkeetan, besteei kompetentzia handia eginez.

Azokak izan ditzakeen abantailak neurtzerakoan, kalidadearena aipatzen dute gehienek. Produktuak freskoak izaten dira eta, baserritarrek ekartzen dituztenak nahiz harkinek eskaintzen dituztenak, hauek inguruetako abereak hiltzen bait dituzte. Horrez gain, eskaintzaren ugaritasuna ere aipatzen da abantailaz hitz egiterakoan.

Azoka beraren egoera aztertzerakoan, saltzaile guztiak datoz bat gaur egungo azokak akats batzuek badituela onartzean, baina batzuren eta besteen eskakizunak desberdinak dira. Bertan egunero egoten direnak, azokan dagoen hezetasuna, etxetako saneamendu-hodiak azoka gainetik igarotzearen ondorioz, ber-

Dena dela, akatsak akats, saltzaile guztien edo gehien ustez, azokak beste kokagune bat behar du. Azoka berri honek, erdigunetik ahalik eta hurbilen egon beharko luke, azoka ferialera aldatu zutenean ere jende

bitartean dauden etxeoandreez gain, azken denboraldian bikote gazteak azokara joaten hasi bait dira. **AIEIren azterlana**

Lehen aipatu dugun bezala, AIEI erakundearen azterlanaren helburua



*Azokaren birmoldaketa beharra ia denek onartzen dute*

murritzeta igarri bait zen.

Azokak arautzen zituen legea aldatzean bi azoka egun izan zitzaizketen herriek, eta horren ondorioz,

Udalari irtenbide egokia aukitzen laguntzea da. Honetarako, merkatu-joateko ohitura zenbatekoa den aztertuko du, etxeoandreei telefonoz deitu eta beren erosketak ohiturez galdetuz gehienbat; merkatuan egon daitezkeen arazoak ikertuko ditu, bertako saltzaileekin bilerak burutuko dituelarik; eta azkenik merkatu-rako irtenbidea proposatuko du. Azken finean merkatuaren bideragarritasuna aztertu eta behar dituen hobekuntzak baloratuko ditu eta merkatuak izan beharko duen merkatal bidea argitu.

Ikerketa honen aurrekontua 2.500.000 pta.koa da eta beraz ordaintzeko Udalak Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu dio.

**“Azokak azpiegitura akats handiak ditu. Saltzaile gehienek Arrasaten azoka berri baten beharra ikusten dute”.**

tan sortzen den usain txarra, azken finean, azoka soto batetan kokatuta egotea aipatzen dute azokaren akats nagusi bezala. Berriz, azoka egunetan bakarrik joaten diren saltzaileak, karga eta deskargarako duen azpiegitura txarra eta dauden iturri urriak aipatzen dituzte, azokaren akatsik nagusi gisa.

Arrasaten asteazken eta ostiraletan hasi ziren azokak egiten; hala ere, Arrasateko azoka egun nagusia ostiralak segitzen du izaten. Asteazketan azoka inguruan bizi den jendea joan egin da. Bertara adin guztietako jendea joaten dela aipatzen digu Antton Etxenagusiak, ohizko erosleez gain, hau da, 40-60 urte



**BELUN  
TABERNA**

**Lagunarte bikaina**

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**





# Zuhia eta nete

## OSO GAUZA BEREZIAK

ZERKAOSTETA, 8 ARRASATE

### ARRASATEKO UDALA

**SAN JUAN 1989**  
**KARTEL LEHIAKETARAKO**  
**DEIALDIA**



Udaletxe honetan Kultura Departamentuan  
deialdi hau arautzen duten OINARRIAK  
interesatu guztien esku  
aurkitzen dira

## itesa

- \* Pisu eta lokalak
- \* Orube eta lursailak
- \* Balorapenak


Gure aholkularitza,  
gestio eta  
salmenta-zerbitzuak  
eskaintzen  
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

## SOKOA

Zeharkale estalia

Arrasate



### Agirre Miota Gestoria

Zerga deklarazioak  
Erdiko kale 28, 2.  
Tfnoa: 79 34 33

### Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34

### TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak  
pintxo eta mokau  
gozoak

### ARRASATE PRESS Astero zuekin



# Leopoldo M<sup>a</sup> Panero: "Psikiatria medikamenduak baino ez dira"

Leopoldo Maria Panero idazleak, izatez madrildarra bada ere, Arrasaten, Santa Agedako Ospitalean bi urte t' erdi daramatza. Liburu ugari argitaratu ditu, 12 alegia eta, nobela bat. Beldurrezko (orror) ipuin liburu bat ez beste guztiak poema liburuak dira. Horrez gain, hitzaldi ugari ematen ditu, Zorroagako unibertsitatean joan den astean azkena. Berarekin egoteko aukera aprobetxatu dugu eta bere bizitzaz, sikiatriari buruz dituen eritziez eta beste gauza askori buruz hitz egin ahal izan dugu.

— Arrasate Press: Leopoldo, zu idazlea zara, baina zure familiar idazle ugari izan dira, horrek zuregan eraginik izan du?

— Leopoldo Panero: Egia esan gure artean ez dugu harreman onik, isilean elkar gorrotatzen dugu, ez dugu famili arteko bizitza egiten. Nire eritziz, familia estruktura paranoikoa da; familia eta maitasuna, biak, bestearen jabetza bait da instituzio hauen oinarria. Mesfidantzan azken finean, ez dago eta beste giza harremanik mesfidantza izan ezik. Hala ere, nire anaia Juan Luisek idazten duena atsegin dudala esan behar dut eta, nahiz eta nire aita faszista izan, aitaren hasierako bosten bat poesia surrealista ere atsegin ditut.

— Gaur egun idazten al duzu?

— Beno Santa Agedan bizitza guztiz antzua egiten dut, landare gisa bizi naiz. Dena dela, noizean behin idazten du. Astero ABC aldizkarian artikulua bat idazten dut. ABCra bidaltzen ditut nire artikulua aldizkari horretan argitaratuko didatela ziur na-

goelako. El Pais edo Diario 16ra ere bidaltzen nituen, baina ez zizkidaten beti argitaratzen eta benetan animatzen zaituena zure lana argitaratuta ikustea da; ez bakarrik diruagatik, egin duzun lan intelektualagatik baizik. Aldizkari batetan esan dezakezuna ezin duzu ileapaindegian edota dendan esan, azken bi hauek aldizkarian esaten denaren ohiartzuna bait dira. Badaude aldizkari batetan esan daitezkeen gauzak irratian edo telebistan ezin esan daitezkeenak.

— Zu Psikiatriko batetan internaturik zaude, zein da psikiatriari buruz duzun eritzia?

— Gaur egungo psikiatria medikamenduak baino ez dira. Ni Ospitale psikiatriko batetan bizi naizenez, psikiatriari buruz dudan eritziak metodu bati jarraitu nahi dio. Psikiatria, zentzuak ukatzen dituen sistema bat da, zentzuen nolabaiteko desagerketa ontzat ematen du eta era horretan tortura alegializatzen du. Psikoanalisia ondo ikusten dut, zentzurik ez dagoen tokian zentzua aurkitzen saiatzen bait da. Keinuak ikertzen dituen EEBBko psikiatria, behin behineko zoramena ikertzen duena, atsegin dut.

—Psikiatrikoetan, jende askok alkoholaren eraginez ingresatzen du, zein eritzi duzu alkoholaz?


— Alkoholak bere alde onak eta txarrak dauzka. Bere alderdi txarra gehiegi edateak nortasuna aldarazten duela da. Pertsonak aldean daraman mozorroa kenarazten du eta ridikuloa egiten da. Horregatik idazten ditudan poemetan agertzen da

*"Zoro batek errukia sor dezake baina inoiz ez errebelatzeko gogo"*

oroitzapenekiko obsesioa. Mozkor bat harrapatu ondoren, hurrengo egunean altxatzea eta egin dudari ridikuloa ikustea, egunero egunero dudari ameskaiztoa da. Alkoholaren alde ona lagunekin edan eta egoteko aitzakia dela da.

— Dena dela, zuretzat zer da zoroa izatea edo zoratuta egotea?

— Zoromena pekatu egiteko aitzakia da. Gaur egungo gizartean zoroa deabroduna bailitzan hartzen da. Beren trukoekin erizaina tentatzen dutela uste da eta hori deabrudunaren imajina bera da. Zoroak



Leopoldo M<sup>a</sup> Panero


"prelogika" era batetan pentsatzen duela esan daiteke. Eta horrela gizon primitiboarekin parekatzen da. Zoroa gizarte kapitalista honen muga da, bere proletarioa eta bere aingeru suntsitzailea da. Gizarte primitiboetan ez zegoen zororik. Gaur egun zoro batek errukia sor dezake baina inoiz ez errebelatzeko gogoia. Hala ere, jarrera dibergentea eta kontzientzia desberdina izateko eskubidea badagoela uste dut, hau da, zoro egoteko eskubidea.

— Errebelatzeko gogoia aipatu, duzunez, zure eritziz borrokatzea merezi duen zerbait, ba al dago?

— Nire eritziz, norberaren alde borrokatzea zilegi da. Nik ez dut nire borroka ezertan oinarritzen, ez dut inor, ez ezer nire gainetik jartzen. Borrokaren helburua zorientasuna lortzea da, bizitza hobetzea, bizimodu hobea lortzea.

— Zer esan nahi duzu zoroa gizarte kapitalista honen muga dela esatean?

— Gizarte honetako oinarritzko balorea, balore falikoa da. Hau da norberak dena bakarrik egin dezakeela uste izatea, norberak dena lor dezakeela uste izatea. Pertsona hauek dena izan dezakete, baina errepresioaren bidez. Jasaten dugun errepresio hau ez da soziala, ideologikoa baizik. Gizarte honek ez du koderik, dena konpetentzian oinarriturik dago, oihan antzeko bat da eta oihan horretako muga zoroa da, balio duen giza balore bakarra irabazlearena bait da.



Euskadiko onenak izan ziren

## Txapelketa arrakastatsua

Bai antolaketa aldetik, kirol mailan bai publiko aldetik, joan den astebukaeran izandako Euskadiko selekzioen 1go Igeriketa Txapelketa arrakastatsua suertatu zen. Txapelketan Euskadiko lau *record* absoluto gainditu ziren: 4 . 100 m. libre gizonetzkoetan, Bizkaiko selekzioak lortutakoa: 03:39:32 ; 4 . 100 m libre emak., Gipuzkoak. : 04:13:89; 4 . 200 m. libre emak., Gip.k: 09:01:57; eta 50 m. libre emak., Silvia Isturizek lortutakoa: 00:27:66. David Sanzek Espainiako markarik onena lortu zuen 1500 m libretan: 16:37:71.

**Sailkapenak Lurraldeka:** Gizonetzkoetan juniorrak: 1. Nafarroa; Emak. juniorrak: 1. Nafarroa; Gizon. absolutoa: 1. Bizkaia; Emak. absolutoa: 1. Gipuzkoa. Sailkapen bateratua: 1. Gip.; 2. Nafarroa; 3. Bizkaia; 4. Araba. Bestalde, hemendik ateratako Euskadiko selekzioak Maiatzaren 6 eta 7an Algecirasen izango du Espainiako Txapelketan esku hartuko du.



Partidua interesgarria izan zen

## Okendok: kategoriari eusteko urrats garrantzitsua

Azkenengo garaipenarekin sailkapeneko liderra den Bidegintzaren kontra (72-63), Okendo Kirolak taldeak funtsezko pausua eman du datorren denboraldian 1. Autonomikan jarraitu ahal izateko.

Partidua oso txarto hasi zen Balzategiren jokalarientzat, Zallako Bidegintza 11 puntuko bentaja izatera heldu bait zen. Atsedendira 31-34 emaitza heldu zen. Afizioaren laguntza oso garrantzitsua izan zen partiduari buelta emateko. Honako hau izan zen jokalarien zerrenda: Mani (7), Elices (5), Iban (15), Mikel (12), Jon (3), Garai (12), Gerardo (10), Lander (2), Ramón, Roberto eta Gari.

Okendo, kategoria mantentzeko, ez dago inoren menpe. Gelditzen zaizkion bi partiduak irabaziz gero, ez du galduko kategoria. Bat galduz gero, eta Deustoko Saldek gelditzen zaizkion hirurak irabaziz gero, berriz, bai.



## BRANKA JATETXEA

Eguneko menua  
eta karta  
Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

## TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8  
ARRASATE

# OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Urbarri Etorbidea 8

podiuma


**José Mari Balzategi, saskibaloiko entrenatzailea**

Josemarik 1. Dibisioan entrenatzeke titulua izan arren, 3. Mailako Okendo Kirolak taldearekin dihardu. Azkenengo garaipenarekin taldeak funtsezko pausoa eman du kategoria mantentzeko. Nahiz eta matematikoki posible izan, faktore asko bildu behar dira Okendo jeitsi dadin. Dena dela, Jose Marik hau ez dela gertatuko espero du.

Denboraldiaren balantzea eskatzen diogunean, gauza hauetaz erreflexionatu duela igartzen zaio. "Gauza asko kontutan hartu behar da. Hasteko, gure lehen denboraldia 3.ean izan da, eta taldea oso gaita da, 4 edo 5 junior (19 urteko jokalariek) dauzkagu. Gainera, talde zailenean jokatzea tokatu zaigu. Bestaldetik, Lander Errasti ez da ibili nik espero nuen bezain ondo. Aurrera begira, seriotasun honekin jarraituz gero, oso ekipo ona osatuko dugu."

Aurten Okendo Kirola-ek sei talde ditu: 4 maskulino eta 2 femenino eta datorren urterako, 8 izango dira (5 maskulino eta 3 femenino). Gipuzkoan, Arrasatekoa baino talde federatu gehiago duenik talde bat bakarrik dago.

Azpiegitura eskasa duen talde batean lan egiteak batzutan denetarik egin beharra dakar: entrenatzailearena, lehendakariarena... "bai, gainera orain nere lanean ere oso nahastuta nabil, eta 6 hilabeteko alabatxoarekin... astero hiru edo lau entrenamendu izaten dugu, eta jeisteko fasean egoteak dakarren tentsioarekin. Batzutan desmoralizatu egiten zara, baina duela 5 urte ez zegoen ezer, eta geuk atera genuen dena eta



Jose Marik 1. Dibisioan entrenatzeke titulua dauka

jarraitu egin behar." Saskibaloiak futbolak duen tradizioa ez duela kontutan hartuta, gabezia handiak dauzka: "ekipoen arteko koordinazio teknikoa falta da. Direktiba gure koadrilak osatzen du, eta zaila da entrenatzaileak aurkitzea. Nik 27 urterekin utzi nion jolasteari entrenatzeke, oso gustora jarraituko nukeenean, eta orain ez dut ikusten jenderik nire atzetik." Entrenatzaile falta hau konpontzeko asmoz, Maiatzean edo Ekainean San Viatorren ikastaro bat emango dute Jose Marik berak eta beste batzuk.

Hildo honetatik jarraituz, zalan-tza ugari planteatzen zaio Balzategiri aurrera begira; "uste dut hemendik urte batzuk barru 2. Mailara igoko garela eta, hau pentsatzerakoan, beldurra eta guzti sentitzen dut, honek suposatuko lukeena ikusiz. Jokalariet fitxa txiki bat kobratu beharko lukete, bidaiak, etab. Pentsa orain milioi bateko aurrekontua dugula... batzuk esaten dute oso aguro goazela, baina momentua aprobetxatu egin behar da, eta aurrera jo".

**Enrike Alonso, Vueltan**

Hasieran Zahorreko zuzendaria den Miguel Morenoren planetan sartzen ez bazen ere, azkenean honetako ekipoan sartzea erabaki zuen. Zapateroren ordez, 99 zenbakiarekin korritzen ari da Espainiako Itzulia. Morenok esan zuen mendiak ondo igotzen zuten ziklista bat behar zuela.

**Atletismo**

Astebukaera honetan junior mailako Gipuzkoako Txapelketa izango da Irunen. Arrasatear hauek hartuko dute esku bertan: J. A. Baena (altuera jauzia), J.A. Gay (400 eta 200 m.), J.A. Fuentes (10 km. ibilketa), B. Alonso (pertika jauzia) eta J.L. Caballero (400 m. hesiak).

**KIROLAGENDA**

- **futbola:** igandean, Setan: Mondra-Real Unión ("klubaren eguna"); larunbatean, Setan: Pedrusko-San Ignacio.
- **eskubaloia:** larunbatean, 6etan (gazte mailakoa): Arrasate K.-C.D. Bergara; 6,30etan (2.Dibisioa): Usurbil-Arrasate K.
- **saskibaloia:** larunbatean, 7,30etan (gazte mailakoa): Okendo K.-Aloña Mendi; igandean, 12etan: Paules-Okendo (Barakaldon; busa debaldekoa izango da. Itxera: 10,30etan Garibaien).
- **mendi-trabesia motorrean:** igandean, Bergara-Bergara. Itxera: 8etan Gasolindegian
- **rugbya:** larunbatean, 4,30etan: Arrasate K.-Hemani.
- **mountain-bikeko kontzentrazioa:** larunbatean, 4etan Oñatiko Olabarrieta auzoan
- **pilota:** larunbatean, 4,30etan Bergaran: Urra-Soroa III.

**Denborapasen soluzioak**

**Esatera zaharrak, zaldiz:**  
"Dirua morroirik onena eta nagusirik txarrena"

inpresio ona



**inprimategia eta autoedizio zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

## Ordenadore bidezko ontzigarbigailuaren diseinua



Arrasateko IKERLAN zentrua

1986az geroztik FAGOR eta IKERLAN, "erremintek" edo CAD soluziobideak alorrean, ikerketa eta garapen-proiektu ezberdinak burutzen ari dira, elektrotresnaren merkatuek planteatzen dituzten beharrei erantzuteko, bere diseinu eta irtenaldi-faseetan produktu edo modelu

berrien denborak murriztuz.

FAGOR eta IKERLANen arteko elkarkidetzaren programa honek, helburutzat zeukan eta dauka, ontzigarbigailuaren produktu-prozesuaren garapen-denbora murriztea.

Lehen proiektua simulazio-sistema bat egitea zen, garbitu beharreko elementuen aurrean ur-parrastada konportamentua aztertzeke, eta bigarren proiektuak, Madrilgo Injineru Aeronautikoen Eskolak lagundu duena, helburutzat kalkulu-sistema baten garapena eta motobonba eta zirkuito hidraulikoaren simulazioa izan zituen.

Lehen programak froga asko egitea uzten du (simulazioak), prototipoa burutu aurretik, denbora eta material asko aurreztuz. Aztertutako modeloan, diseinu-denbora laurdenera murriztu da. Garbiketaren eraginkortasuna %16an gehitu da eta garbitzeko erabili den ur-bolumena %22an murriztu.

Bigarren programak ontzigarbigailu bakoitzari dagokion motobonba fabrikatzeko behar den dokumentazioa ematen da. Aztertutako modeloan bonbaren potentzia laurdenera murrizten da.

Amaitzeko, adierazi behar da diseinuaren beste aspektu batzuk tratatzen dituzten beste proiektu batzuri hasiera eman zaiela eta konjuntua berrikuntza bat dela nazioartean.

**SEAT**

**Udalaitz, S. A.**



**GARANTIAK SENDOENA!**

Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 etxebehea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

**ARRASATE**

**JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea**

*Kirurgia orokor eta liseri-aparatukoa  
Kontsulta astelehen eta ostegunetan,  
5,30etan hasita aurrez ordua eskaturik  
Igalatorioa mediko kirurgikoa*

*Lagun-Aro eta beste aseguro batzuk*


**Biteri Etorbidea, 2 - 11 Tfnoa: 79 21 73 ARRASATE**

**" PAL "**

**burdindegia, brikolage eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3

Tfnoa 79 31 99




**ZENBAKI**

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

**BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)**

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

## Teknika: ABS frenatze-sistema



Autogintzaren munduan, industriaren beste arlotan bezalaxe, ikerkuntza bilakatu da garapenaren ardatz. Gero eta sofistikatua diren laborategitan, ikerlari burutsuak lehia gogorrean ari dira, lehengo sistemak hobetu edo horien ordeztako sistema berriak asmatu nahian. Eta autoetxe batek garrantzizko aurkikuntzaren bat lortzen duenean, berehala hedatzen da teknika berri hori, edo antzekoren bat, beste autoetxe guztietara.

Autoetxeen ikerkuntza lantzen ari den ildo nagusiak hauek lirateke:

karrozeriaren diseinua nola optimizatu, motorearen errendimendua nola hobetu, errekin-kontsumoa nola murriztu eta bidaiariaren segurtasuna nola areagotu. Azken ildo honi dagokio gaur dakargun gaia, frenuen trabaketa eragozteko asmatu den sistemarena, hain zuzen.

Sistema berri hau Ford etxeak asmatua da, orain pare bat urte, baina beraren garrantziak eraginda, gainontzeko autogileek ere agudo asko ekin diote gaia ikertzeari. ABS sistema hau frenatzerakoan egiten den lana ordenagailu bidez zuzentzean datza. Jakina da frenatzean, eta batez ere frenaketa bortitza egiten denean, autoaren lau gurpilek ez dutela guztiz batera jokatzen. Eta nahikoa da ardatz bereko bi gurpilen artean alderik txikiena sortzea autoaren norabidea bapatean eta ustekabean aldatzeko.

ABS sisteman, gurpil bakoitzari salatari koxkor bat ezartzen zaio,

zeinak gurpil horren portaera salazten bait dio ordenagailuari. Eta honek, gurpilen arteko alderik igartzen duenean, frenu-zirkuitoan dagoen presioa lau gurpilen artean birbanatzen du, laurek jasaten dutena berdina izan dadin. Horrela lortzen da lau gurpilen joerak parekatzeta eta autoaren norabide zuzenari eustea.

Hara hor, bada, nola ordenagailuen erabilerak autoen segurtasunean hobekuntza nabaririk ekar dezakeen, eta ez sarritan ikusten diren fantasiak bakarrik.

Larrosa honek ere badu, ordea, arantzarik. Ikerkuntzaren emaitzak garestiak direnez, ABS sistema hau auto garestiei bakarrik ezartzen zaie, oraingoz. Ea hadapenak dakarren merketzearen poderioz, auto arruntei ere lehenbaitlehen ezartzen zaien. Gidari pobreak ere horrenbeste merezi dugu eta.

Mikel Intxausti



**TXIKIAK**  
**oinetakoak**

Otalora Lizentziatua 21. Tfnoa: 79 44

**J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA**

Azalaren, ilearen eta hatzalaren gaixotasunak  
Azaletiko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

**Kontsultak arratsaldetan**

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

**Zubizarreta**  
**Tailerrak**



Gipuzkoa Etorbidea 22,  
Tfnoa 79 15 65

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**ANDERE**

*Bainu eta  
sukaldeko*

**ALTZARIAK**

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

\*Sukaldeko altzariak neurri egin eta ezarri.

\*Lehen mailako elektratesnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurri ezartzekoak.

\*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

\*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

*Maiatz*

**ILEAPAINDEGIA**  
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)

Tfnoa: 79 58 78

**ARRASATE**

## Haurrekin jolastu, zergatik? (2)



Aurreko artikuluan esan bezala, hemen gaude berriro ere gai hau aztertzeko asmoz.

Gaurko honetan, haurrekin jolasteko baliagarri izango zaizkizuen hainbat abestitxo labur eskainiko dizkizuegu. Guztiak gure bailarako pertsona nagusien ahotik jasoak dira.

Baina... nola jolastu abestitxo hauek direla medio?

Haur kanta hauek ez dute erabilerarik bakar bat, geure arbasoen ohiturei jarraituz, zozketa egiteko, atzamarraz ikutuz kantatzeko, ala edozein momentutan haurrekin batera errezitatzeko oso aproposak dira.

Hona hemen bada, adibide batzuk:


Behin bizi zien Peru eta Marixe  
Hareik eukien txarri txikixe  
emutetzien aza berdie  
eta itten auen kaka berdie  
(*Tomasa, M. Karmen eta Arazeli, Mendiola Eskoriatza*)

Zeruko amandria  
zeruan ze berri?  
zeruan berri onak  
orain eta beti.  
(*E. Ugarte, Oñati*)

Zozketa egiteko aproposa  
Don-don beledon  
Beledongo elizan  
zazpi atso dantzan  
zazpirak zaukaten  
ardi bana boltsan  
Nahi dabena, nahi dabena  
KAN-PO-RA  
(*Lucia Otadui, Udala*)

Jolasa: hau esan ondoren barra  
ala berba egiten duenak galtzen du  
Behin bizi zan Juan Parra  
joan zan, Garagartzara  
jan auen aza berdie  
ein auen kaka berdie  
barre eta berba eitzen  
duena beretako.  
(*L. Bengoa, Arrasate*)

*Klarion taldea*



*Autobusak  
Arrasatetik  
Donostiara  
9,15etan*

**ELA**

# Bizi itxaropena

Zibilizaioko gaitzetan, -edo beste modu baten esanda, Aro Modernoko gaixotasunetan (minbizia, arteriosklerosia, artrosia...)- adinak zerikusi handia du. Adineko pertsona asko daudenean gaitz hauek nahiko arruntak izaten dira.

Gure zibilizazioak dituen fenomeno demografikoetatik badaude kezka sortzen duten batzuk, eta hauetako bat gizartearen zahartzapena da. Gaur egun pertsona bat urte gehiago izatera heltzen da, bigarren gerra mundiala pasa ondoren bizi-itxaropena asko haunditu bait zen, azken urte hauek geldirik mantentzen bada ere: Honekin batera, beste garrantzizko fenomeno bat dugu gure artean: jaiotzak gutxitu egin direla, era berean. Bi fenomeno hauek elkaturik gure populazioaren zahartzapena ekarri digute.

Horrela Espaniako Estatu mailan, 65 urte dituzten pertsonen kopurua erritmo izugarrian doa haundituz eta gaur egun %13 ingurutik dabil.

Euskal Herrian batezbesteko bizi-itxaropena, gutxi gorabehera, 70 urtekoa da; hori, gizonezkoentzat; emakumeak, berriz, 76 urtekoa du. Populazio zaharraren gehikuntza hau, osasunaren aldetik begiraturaz, garrantzi handikoa da, gaitz kroniko-degeneratiboak handitzen bait dira, era berean.

Arrasateko zentsua hartu dugu 1989ko Apirilaren 1a arte, hain zuzen; eta denetara 25.909 biztanle agertzen dira erroldaturik. Adin-taldean banaketa hau dugu:


0 - 20 urte bitartean	%29,79
20 - 30 "	%16,68
30 - 40 "	%15,09
40 - 50 "	%12,64
50 - 60 "	%12,33
60 - 70 "	%7,65
70 - 80 "	%4,21
80 - 90 "	%1,31
> - 90 "	%0,09

Beraz, 65 urtetik gorako 2.345 pertsona ditugu gure herrian; eta horien artean 911 gizonak dira eta

gainontzekoak, hau da, 1.431, emakumeak (andreak urte gehiago bizi ohi dira); populazioaren %9,03 guztira.

Biztanlegoaren kopuru osoa hartzen badugu, gizonen taldea 13.004ekoa dela ikusten dugu (%50,19), emakumeena, berriz, 12.905 (%49,81).

Gizonezko gehiago daude Arrasaten 60 urte baino gutxiago dituzten artean, baina 60 urtetik gora emakumeen kopurua handiagoa da.



Eukeni Olabarrieta eta Arantxa Lizaso

## EUSKARAZKO PRAKTIKALDIAK


### FAMILIA EUSKALDUNETAN

Kanpaina honetan parte hartuz euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 45.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera  
(Euskara Zerbitzua)

### HARTU ZURE ETXEAN

### EUSKARA IKASLE BAT!



ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

# SAN ANDRES AUZOKO JAIAK

## APIRILAK 28-OSTIRALA

- 18.00- Benjamin "B" mailako futbol-sala txapelketaren finala.  
18.30- Jaien hasiera etxaflero jaurtiketekin.  
19.30- Erraldoi eta buruhandien kalejira, dultzainarien laguntzaz.  
22.30- Dantzaldia, BERAKATZ-BAND taldeak alaiturik

## APIRILAK 29-LARUNBATA

- 09.00- Diana eta etxafleerok  
09.30- Marathoi herrikoia  
10.15- Gimnasia erritmikoaren erakustaldia - Zeramika erakustaldia  
11.00- " Benjamin A " mailako futbol - sala txapelketaren finala  
12.00- Kuadrilla arteko futbol-sala txapelketaren finala  
12.30- Kalejira  
16.00- Umeentzako jolasak  
19.00- Buruhandi eta erraldioen kalejira

- 19.30- Txaranga  
22.30- Dantzaldia, "GAURKO-BERRI" taldeak alaiturik  
24.00- Bigantxak; eta musika gehiago

## APIRILAK 30-IGANDEA

- 09.00- Diana eta etxafleerok  
10.00- Ziklismoa, "MESON MANOLO" eta "LA ESTRELLA ASEGURAOAK" en laguntzaz  
10.30- "ALEVIN" mailako futbol-sala txapelketaren finala  
11.30- "INFANTIL" mailako futbol-sa latxapelketaren finala  
12.30- Txaranga  
13.00- Herri kirolen erakustaldia  
16.00- Umeentzako jolasak  
- Txokolatada  
- Pottoka, ahariak, oiloak, basurdeak eta abar.  
\_ Ezkondu eta ezkongabeen arteko futbol partidu bikaina iturripen, "Bolsa eraikuntzak" enpresari esker  
19.30- Erraldoi eta buruhandien kalejira  
22.30- Dantzaldia; "IMAN" musikataldearekin "MARIACHI FESTIBALA"  
24.00- Bigantxak eta musika gehiago



## MAIATZAREN LEHENA

**ALDAKETA SOZIO-POLITIKOAREN  
ALDE: NEGOZIAZIOA!!**

**DENOK BILBORA - 12etan LA CASILLAN**

**Autobusak: ARRASATETIK irteera 10.30etan Arbolapetatik**

**LAB Sindikatua**

**VE ECUADOR**

Kontzesifio 2, Tfnoa: 79 14 06



**Almacen del Mueble  
Mondragon  
Prezio paregabeak  
Zatozte**

**Gipuzkoa Etorbidea, 6 Lehena behea Legarre**



**ETXEBIZITZAK**

- **Garagea salgai** Erdialdean. Tfnoa: 791923
- 60m<sup>2</sup>ko merkatarizarako lokala salgai. Tfnoa: 797480
- **Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da.** Prezioa interesgarria da. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 796578-797916.
- **Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da** urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- **Gutziz hornitua dagoen ileapaindegi bat errentan eman nahi da.** Interesatuek dei 79.95 86 telefonora
- **Arrasaten pisu bat errentan hartuko genuke.** Interesatuek deitu 79.54.31 telefonora (arratsaldeko 8etati aurrera)
- **Aldai-gainen pisua salgai.** Sukaldea, egongela, 3 gela, eta garagea. Berokuntza zentrala. Interesatuek dei 79.71.93 telefonora.
- **Pisua konpartitzeko neska bat behar dugu.** Tfnoa: 79.69.82 (gauetan)
- **Pisu txiki bat errentan hartuko nuke.** Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79.97.34 telefonora
- **Torrevejan Bungalows-a salgai dago.** Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gaueko 9.30etatik aurrera deitu, 79.15.74 telefonora.
- **Laredo: Apartamentua salgai dago.** Interesatuek dei 79.52.80 telefonora
- **Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an;** Tfnoa: 79.49.36
- **Konsulata medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da.** Interesatuek dei 11.39.57 telefonora. Gauetan
- **Udarako aproposa, Algortan pusua salgai.** Bista onak, Aldapas poligonoa. 3

- gela, egongela, sukaldea eta komuna. Tfnoa: 469.82.69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez deitu.
- **Pisu bat salgai erdialdean.** Interesatuek dei 79.29.82 telefonora
- **Etxebizitza salgai Bergaran.** Zubieta kalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- **Lehenbait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu** Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa: 79.09.00. Lorea.
- **Bikote batek, lehenbait lehen pisu bat errentan hartu nahi du.** Tfnoa: 79.70.29. Iñaki.
- **Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da** Uribe Auzoan. Interesatuek dei 79.47.85 telefonora.
- **Mutil eta neska! galarik libre edo bantzeko baduzu, ondo etorriko litzaidake.** Ezdut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79.52.89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484.90.53 telefonora.

**LANA**

- **Emakume batek haurrak zainduko litzuzke.** Interesatuek dei 79.63.43 tfnora.
- **23 urteko emakume batek etxeko lanak edo umeak zainduko litzuzke.** Informeeekin eta esperientziaduna. Interesatuek dei 79.73.88 edo 76.51.32 tfnora.
- **Bergarako Udalak igeltzero bat kontratatu behar du,** urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- **Bergarako Udalak Administrari laguntzaille bat kontratatu behar du,** urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan..

- **Bergarako Udalak Delinianta bat kontratatu behar du,** urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan
- **Eraikuntza irakaslea behar dugu.** Interesatuek dei 79.79.38 tfnora
- **Alecoop-ek kalitate zuzendari bat eta merkatal teknikari bat kontratatu behar ditu.** Interesatuek, datu pertsonalak eta curriculum profesionala 20.500 Arrasateko 81 postakutxara, Pertsonal-Departamentuari zuzenduta, premia bidez bidaltzea eskatzen dugu.
- **Emakume bat behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko,** ahal balitz euskalduna. Interesatuek dei 79.51.50 tfnora, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.

**SALEROSKETAK**

- **Salgai dago R5 SS-0066-J.** Tfnoa: 79.85.08
- **KanpinG denda familiar bat salgai dago** (bostekoa). Interesatuek dei 79.09.00 telefonora. Loli.
- **Bigarren eskuko hozkailu behar da.** Tfnoa: 79.88.23
- **10 abiadura eta 54 neurrizko "Corbeta" bizikleta salgai dago.** Tfnoa: 79.58.29
- **Gure galtzak kriston afuinue dauke.** Bigarren eskuko labadora bat pozik hartuko geunke merke edo erregalaute. Tfnoa: 79.88.23
- **Ia berri dagoen bi ohe tolezgarrizko armairua salgai.** Prezioa elkaren artean jartzeko. Interesatuek dei 79.78.91 telefonora (3etatik aurrera)

†  
**ARRASATEN HILDAKOAK**

**Pío San Miguel López, 75 urte.**  
Apieilaren 19an.

**Esperanza Galarraga Maiztegi, 63 urte.**  
Apirilaren 22an.


**Cecilia Fernández de Agirre Izaga, 83 urte.**  
Apirilaren 22an.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:**.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

## Famauen ahotik



"Afrikan gerriek urten eta danok Marruekosera"

### Tabernako semie

Ni Ferreriasen, hementxe denda gañien jaixo nitzuan. Oin Txantxoten peskadeixie dauen lekuen guk tabernie gaukan, Gantxegixena. Tabernan bertan dendie be bajauan. Lehengo estilora danetik eukitten gaixuan; ferreteixa kontue batez be asko: igeti, atxur, sarda,... zer ez! Orduen Mundrauen hillien birriten feixa haundixe eitten zuan eta jente asko eukitten gaixuan. Makina bat afai-meixenda emoten gaixuan feixa-egunetan!

### Zerrajerara lanera

Hamalau urteaz sartu nitzuan Zerrajeran eta 65 eindde urten naixuan. Fundiziforako modeluek eitten nittuan egurrien. Orduen 1.000 artikuluko katalogue jaukan Zerrajeriek eta hasixeran ez kamioi ta ez tren ta ezebe ez auenez, irixekin erueten jittuen Bergarako goiko estaziñora. Inguruko baserriarrak izeten zittuan karretero.

### Soldauskie Marruekosen Abd-el-krim-en kontra

Bai hori be pasau jatan... Or-

### JOXE MARI ARANZABAL: "Mundrauen hillien birriten feixa haundixe eitten zuan"

#### NIRE SASOIKO MUNDRAUE

"Kale-beserrixe jauan asko: Erregetxeona, Moantena, Sansongue, Labekue,... Erdiko kalien be bai... Perikotxona, Konkone-na,... Ganauek plazatik ziber pasau eta danba-danba zelaire"

Joxe Mari Aranzabal

duen kuota bat pagau ezkerro soldauskie ein barik ero erdixe eindde librau eikian eta nik ein naixuan bi mille pezeta pagau eta sei hillebeterako asmotan juen. Bañe sei hillebetiok ixie akabauen ninguela urte juan Afrikan gerriek eta hartu bata- lloi osue eta han eruen ginduan Marruekosera. Hamazazpi hillebe- te ein nittuan gerran.

### Kazari amorratue

Bai, kazie asko gustau izen jatek eta tiro platuen be asko ibilli izen nok. Premixu mordue atara naixuan sasoi baten. Gero, organizadore be ibiltten nitzuan. Plato ta, makifia ta... danok neuk ipintten nittuan.

### Kartutxo beteten

Orduen etxauan kartutxuek montetako fabrikaik eta azal, pol- bora, perdigoi ta biher zienok ekarri eta etxien montetan gittuan. Kontu haundixe euki biher izeten zuan larrei ez estuketako bestela bertan be iguel errebentau ta...

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

## Zelebrequerixak

Farmazeutiko batek e Aiunta- mentura juteko errekaue zeukan eta semia lagatzen dau farmazian, da esate jao e,

— Bueno, bost minutu eingo jituat eta ni etorri arte egon hari hementxe, da baten bat etortzen bok esaixok etxoittek, hik eztok e erre- zeta asuntuan ententitzen da.

— Bale, bale

Aitta urtenalaz bat agure zar bat etortzen da, eztulka itto biharrian, eju, eju! eju!

— Zer bihozu?

— Emoidak zeoze, itto in biot eztulka ta.

— Baiña nik eztakit pa ze..., ta

— Bai, hire aittak hor baztarretik emuten jostan zeoze.

— Aber ba, aber ba, egon pixka- ten.

Beitzen hasten da, ta, koño, "Libratodol"

— Hauxe izango da eztarrixa libratzeko.

Emuten jao ta; aitta e farmaziara ailegatzen dagola e, ikusten dau agure zarroi farmaziatik urtetzen, bi pastilla tragau, sartu paketiok poltsikuan dagoitik bera juten. Esaten jao semiai e:

— Ze bia juan horrek?

— Ezin zaban ba etxoin; eztulka itto biar zala ta, hortik emute jatsula.

— Ze emun jak pa?

— Hamen hauxe ba, "Libratodol" jartzen dau ta, eztarrirako... ta...

— Hori e enpatxuan kontrarako dok mutil, "Libratodol" eztaik? Bien honbre. Etxoik aber ze eitten doun.

Juten da aintxintxika goittik bera eta ikusten dau agure zarroi poste bati helduta.

— Da, aitonna, eztula ondo?

— Oif ez nok atrebitzen.

Jose Ramon Peña (Antzuola)


Juan Martin Elexpuru



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



BAÑEZ-ARTAZUBIAGAtarren JAURETXEA .

**I** turriotz kaleko goikaldean aurkitzen den etxe dotore hau XVI. mendean jasoarazi zuen Asensio Bañez-ek. Erdi Aroko Ahaide Nagusien arteko burruka odoltsuetan Bañez-Artazubiaga familiakoak Arrasateko ganboatarren buruzagiak genituen. Erdiko kalean, parrokiako atari inguruan, dorretxe bat zeukaten Bañez-tarrek, baina gaur egun beste eraikuntza bat dago toki horretan. Familia honen armarrian zera irakur daiteke oraindik: *Pro nostri generis libertate combusta, hots, Gure leinuaren askatasunaren alde errea*. Egia esan, ez zuten Arrasateko etxerik erre, Bedoñan zeukaten Artazubiagatarren sortetxea baizik. Hori Juan Bañez-ek burutu omen zuen protesta gisa XIV. mendean, erregeak Leintz Harana Oñatiko Jaunari eskuratu zioenean. I. Ojangurennek ateratako argazki honetan azaltzen den etxe hau oraintsu zehara eraberritua izan da ■

—Fotozahar sariketa—

Nori eskaini zaio Bañez-Artazubiaga jauretxe eraberrituaren ondoan ireki den plaza?

—Joan den asteko irabazlea—

M<sup>a</sup> Nieves Saralegi, antzuolarra. (“Garagartzako jaiak San Migeletan ospatzen dira, irailaren 29an”)

“Gremlins” euskarazko bideofilmea  
-VIGURI Bideo Klubak emana-  
irabazi nahi baduzu,  
aste honetan bertan  
postala bidali gure helbidera,  
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:  
**Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate**



...eta gainera

**VIGURIk**

hilaren bukaeran

14'ko koloretako

**ITT** markako TELEBISTA BAT zozkatuko du

hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

YAMAHA sonora PANASONIK CEC MUSIMA  
 KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas  
 QUAD Clener CASIO EGI  
 Mission baile Goodmans NAKAMICHI  
 HONNER BASF Ornela  
 Zimmerman Polytone Televes  
 Fujitsu LARK Rotel  
 Cyrus Fox  
 JAMO JBL PIONEER PHILIPS  
 TEAC KELLER Moreschi  
 carol TORQUE Admira Ortofon JUGGS  
 Hantarex Alpine Estrella KONIKA UHER  
 Tensai MELOS SHINTON  
 Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09



**Memesa**  
 79 42 22

**FELIPE  
 MADINA  
 ZURAK**  
 Zarugalde, 40 ARRASATE 79 13 78

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO  
 ZENTRUAK**  
 INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara  
 Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

**OSORIK  
 pub**  
 Ignazio Zuloaga

**AUTO-ALDAGAILUAK  
 ARRASATE**  
 kotxerako aldagailu eta akzesorioak  
 Tfnoa: 79 61 11 Udala Eparantzza (Izarra dorrea)

APARTAMENTU,  
 ETHEBIZITZA  
 ETA  
 BUNGALOWEN  
**SALMENTA  
 ETA  
 ALOKAIRUA,**  
**TORREVIEJA  
 ETA  
 VILLASOLLOSA**  
 Informazioa:  
 Enrique Mendieta  
 Kontzesifio kalea 6, etxabea

**BIONAS**  
  
 Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
 BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN  
 IZEN-DEITURAK.....  
 HELBIDEA.....  
 HERRIA.....  
 Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE  
 PRESS**  
*astero zuekin*

## Pandorak du errua

**B**izia eta Heriotza betidanik zeuden burrukan. Unibertsoa sortu zenetik. Bien arteko gatazka amaigabe hura hasi zen. Biziak ikutzen zuen guztia, Heriotzak azkenean bere eskuen artean estutzen zuen. Baina Heriotzak beti itxaron behar zuen biziaren sortzeari laster edo berandu bizidun hori bere sareetara inguratzeko, eta Biziaren zorionik handienetako bat horretan zetzan. Baina Heriotza, jeloskor jarririk, deabru berak asma ez zezakeen zerbait garatu zuen buruan...

Heriotza sortuberria zen Lurrean aurkitzen zen. Berak bazekien ordurako Gizona hazten hasia zela, eta bere maltzurkeriaz baliaturik, Gizonari heriotzaren zentsua sartu zion buruan, aurrerantzean jakin zezan biziak heriotzean bukatzen duela; honek Gizonarengan eragina izango zuen. Eta noizbait, gizaki bat heriotzaren esanahiaz konturaturik, erabaki zuen, bere onetik at, hurrengo gizaldietan etorriko ziren gizakiek ere ezagutuko zutelara, eta "Pandoraren kaxa" zabaldu zuen. Honela, gizonak lurraren heriotzera zeraman bidea hartu zuen.

Hau dena gertatu zen bitartean, Biziak ez zuen konturatzeko astirik izan, zeren eta biziarentzat iragandako unetxo batek guretzako milaka eta milaka urtetako baliokidetasun bat zuen. Ikusi zuenean Heriotzaren eskua lurrean, eta XX. mendeak zeraman bidea, agure itxura hartu, eta lurrera abiatu zen, kulturen arteko Elkar Anaitze-aren kanpamendu baten sondatu zelarrik. Gauez, haur multzo bat elkarrizketan zegoela, Bizia (Jon Agirre) agertu zitzairen. Berak zuen erreztasun hurarekin, istorio bat kontatzeari ekin zion... Bukatu zuenean, haur guztiak txunditurik zeuden, printzesa, erregez, heroiez, sorgineez, eta horrelako pertsonaiez jositako ipuina sarraski baten bukatu zelako. Haiek zekitelara, honelako ipuinak beti ongi bukatzen ziren. Agureak, bere baitan "entzun iezaiozue Joni, ireki belarriak zentzu zuzenari, ipuin hau gizakien gizartearen ispilu bat da eta" zioen, eta hurrek entzun egin zioten.

Bizia eta Heriotza elkartu zirenean, Heriotzak Biziari goitik behera so eginez, txit alaia agertu zen; ia negarrari ere ez zion eusten. "Nola gogoratuko dute hain haur nimiño batzuk zuk esandakoa, ja, ja, ja!!". Eta barrez ia husturik, joan egin zen.

Oraindik ere entzun daitezke bere irrifarrearen ohiartzunak, Gizonari iseka egiten diotelarik. Zertan zaudete, ba? Noiz arte itxaron behar, konturatu zaitezten? Jadanik batzuk hasiak dira. Entzun iezaiozue haiei, ba?

Amai dezagun!

*Unai Bergaretxe*

**Goiztiri**  
**Opariak**

Maalako Errebala, 11  
Tfnoa 79 87 43

**UDALA**

**Auto-eskola**

**Minusbaliatuentzako  
klase bereziak**

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE

■ **Teleprogramaren inkesta:** Teleprograma telebistaz erdara hutsan argitaratzen den aldizkaria omen dugu. Omen, diot, zeren ez bait dut inoiz irakurri, eta nik bezala ETB1 ikusten dugun euskal ikusentzuleen artean ez dakit zenbatek irakurtzen duen. Teleprogramak, bada, "ETBko onenak" sariketa antolatu du eta horretarako bere irakurleen artean inkesta bat egin du, ETB1 eta ETB2ko saio eta aurkezlerik onenak nortzuk diren galdetuz.

Une batez pentsa ezazue zer gertatuko litzatekeen "El Hurogallo" bezalako erdal literatur aldizkariak bere irakurleko nagusiki erdaldu-naren artean nortzuk diren Euskal Herriko idazlerik onenak galdetuko balu eta hortik konklusioak atera euskaradun literaturaren osasunari buruz. Ba, Raul Guerra Garrido, Alvaro Bermejo etab. luzea agertuko litzatekeela. Eta osasunari dagokionez norbaitek, euskal literaturaren hil kanpaiak joko litzuzkeela.

Guzti hau ez litzateke bat ere zuzena izango, ez aipatu idazleen merezimendu faltagatik, metodoa erabat okerra delako baizik.

Teleprograma inkestaren ondorioetan Jose Maria Iñigo, Jose Luis Moreno eta hañakoak agertzen dira irakurle horien preferentzien gailurrean, ETB1eko aurkezle eta saioak oso atzean gelditu diren bitartean. ETB 2ko erdal ikusleek euskal katean ematen diren kirolak ere ikusten dituztenez, ez da harrizkoa haien zait Pedro Mari Goi-coetxea izatea euskal kateko esataririk ezagunena.

Lehengora itzuliz, ETB1 ikusten duten nire ezagunen artean inork ez du Teleprograma erosten eta, ETB1eko ikusle goa kontutan hartuz gero, ez dirudi aldizkari hori haien deboziozko irakurle datekeenik. Beraz, oso arriskutsua iruditzen zait inkesta horretan azaldutako emaitzak Euskal kanaletara ere zabaltzea, besterik barik. Are arrisku-tsuagoa Jose Miguel Azpiroz, ETBko ihardunezko zuzendariak egin duen bezala, inkesta horretatik beste ondorio batzuk atera nahi direnean, ETB1en kaltetan.

"Iñigo eta Moreno dira -esan du Azpirozek- ikusentzulegoa daramatenak. Horregatik nahi dutena egiten utzi behar zaie. ETB1ekoek, oster, ez dute ikusentzulegorik lortzen. Gauza garbi dago".

Argi dago, bai, zenbaiti belarriak ikusten ari zaizkiola. Penagarria zera da, horrelako jendea dagoen lekuetan egotea, alegia.

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **Funtzioa,** ostiralean, 21,00etan. Aste honetan bi gonbidatu indartsu izango ditugu: Iñaki Perurena eta Mikel Saralegi harrijasotzaileak, hain zuzen. Aste honetako scketcha Riki eta Raka espioilariena izango da. Carlos Montero tangista eta Fidel Aranda malabaristaren aktuazioak ere izango ditugu.

■ **Sariketa berria,** ostegunetik, hilak 27, maiatzaren 28 arte sariketa berria ETBn. Egunero 3, 9, eta 10etan, bi kataien programazioari buruzko galderak botako dira. Erantzunekin postalak bialdu beharko dira ETBra (postal bakoitzean erantzun bakarra). Postal guztien artean, Maiatzaren 31n bi lagunentzako 15 egunetako zortzi bidaia eta 200 eta 100.000 pta.ko bida poltsak zozkatuko dira. Zorte on!

■ **Butterfield 8 (1960).** Asteazkenean, 21,00tan. Zuzendaria: Daniel Mann; Antzezleak: Elizabeth Taylor, Laurence Harvey, Eddie Fisher. Gloria, haurtzarotik traumatiko emakumeak maitasuna gezur handia baino ez dela uste du. Ligget Weston ezagutzen du eta berarekiko harreman grinatsu eta gogorak zoriona eta mina ekarriko dizkie.

## bideoak



**Sanson eta Dalila:** Sanson bulartsuak bereak eta bost egiten ditu Filistearren artean. Hauek Dalilarengana joko dute, haren indarraren sekretua jakin nahian. Gertaera guzti hauen lekuko, gure ikerleari garaikide gazteak. Aurrekoetan bezala, istorioaren 30'ak euskeraz daude. Baita poprrriaren 15'ak ere. Azken hamarrak, ordea, gaztelaniaz.

## OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

### Ostirala








3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-ko)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

RRE	NA	O		
RIK		NA	GU	NE
TA	TXA	RROI	RU	
MO		SI	NA	
RIK	E	A		DI



### Esaera zaharrak, zaldiz:

Ajedrezeko zaldiaren mugimendua jarraituz osatu esaera zahar bat

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

## Horoskopoa



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Gaizki portatu zarela jakin arren ez duzu ezagutu nahi. Bide horretatik jarraitzen baduzu edozein gauzarekin topatzeko prest egon behar duzu.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Ez zaude behartuta burutik pasatzen zaizkizun gauza guztiak betetzen, batez ere lanetik kanpo. Konturatu behar zara ideiak ez direla beti onak.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Datorren astean lanean eta amodioan primeran ibiliko zara baina ez hain ondo ekonomia asuntuetan eta norbaitekin haserretuko zara diruagatik, gehiegi gastatzen duzu eta.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Ameslaria zara; ondo pasatzen baduzu segi baina ametsak ametsak dira eta ezin dituzu apurtu beste gauza batzuekin egiten duzun bezala.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Daukazun gorabehera horiek kontrolatu beharko zenituzke, ez bait da txantxetako gauza. Jende berriarekin harremanetan hastea komeni zaizu zauden irlatik ateratzeko.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Odolbero zarenez ez dituzu gauzak bi aldiz pentsatzen, beraz, egoera txarrean aurkitzen bazara, zeu zara errudun bakarra. Hortik atera zaitezzen badakizu zer egin behar duzun.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Zergatik ez zara ausartzen hori egiten? Orain arte oso argi ikusi duzu egin behar zenuena, beraz ez beldurtu, ez da beste munduko gauzarik.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Zeure lagunek zuk baino askoz hobeto ezagutzen dute komeni zaiena, ez duzu zure sudurra sartu beharrik haien asuntuetan, nahiko duzu zureekin



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Gehiegi arduratzen zara lanarekin, horrek ez zaitu batera laguntzen. Utzi lana alde batera eta gozatu beste leku batzuetan eta beste ordu batzuetan, lanetik at.




**CANCER**  
Ekainaren 22etik  
Uztailaren 22ra

Lagun horrek arazoak besterik ez dizkizu ekarriko. Lasaitasuna nahi baduzu ez hurbildu baina abentura bila bazabiltza, froga egin.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Gau-txori bihurtzen ari zara, egunsentia heltzen denean daukazun enkantua desagertzen doa, eta errealtatera bueltatu behar. Kontuz ibiltzen zaren jendearekin, ez dira fidagarriak.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Zure borrokak merezi izan du. Pasatu duzun garaia oraitzapean kutxan gorde eta hemendik aurrera bizi, lanak uzten baduzu, behintzat.


**BAILARAKO ENPRESETAKO AURTENGO AKORDIOAK**

**ENPRESA SOLDATAREN IGOERA**

AZBE ZUBIA	%6,8
C.V.L.	%7,5
ILLARGI	%6,4
FUNDICIONES LENIZ	%7,2
SOANAL	%9
ALZA	%6,1
TESA	%6,8
ZUBIZARRETA	%8
GARAI	%7,6
TXINTXURRETA	%7,5
PEROSTERENA IRIZAR	%7,5
CERRAJERA URIBARRI	%7,5
ALTUNA HERMANOS	%6,8
CEGASA	%6,4
MAYC	%6,6
TTT	%7,05
CEVENTOR	%6,4
TORUNSA	%7,05

**ENPRESA SOLDATAREN IGOERA**

LAKOR	%6,8
IBILI	%7,8
METAGRA	%7,05
ELAI	%6,2
IRAUNDI	%7,53
POLMETASA	%6,8
IFAM	%6,8
ELMA	%9
RONEO	%7
ULARCO	%9,9
ARRASATEKO UDALA	%6,5
OLGAM	%6,4
MECA	%8
EYA	%7
ASAM	%6,7
SEAT	%7
JOMA	%6,8
BIURTU	%6,4



**MERKATAL ZENTRUA**

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ